



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

# Odol isuria nola saihestu

**B**ordele, 1283ko ekainaren 1a. Karlos I.a Anjoukoak eta Pedro III.a Aragoi-koak, elkarki erronka jo ondoren, hitzordua toki eta data horretan jarri zuten. Bordeleko desafioan Siziliako tronua auzia behin betiko erabakiko zen.

Urte batzuk lehenago Siziliako Erresuma Karlos Anjoukoaren esku zegoen, baina 1282ko martxoaren 30ean, aragoitarrek uharteko frantziarrei eraso egin zieten. Siziliar Bezperak esaten zaio sarraski hari. Anjoukoak erasoari aurre egin nahi izan zion; hasieran Aragoiko erregearen tropak mendean hartzea lortu arren, Mesinako guduan porrot egin zuen eta, koroaz gain, 10.000 soldadu galdu zituen.

Orduan, halako odol isuriak saihesteko, eta, ustez, eskuzabaltasun keinu bat eginez, Karlos I.ak desafioa zuzenean bota zion Pedro III.ari. Biek aurrez aurre egingo zuten duela, tropak arriskuan jarri gabe, eta irabazlearentzat izango zen Siziliako tronua –bietako bat kokildu eta azalduko ez balitz, bestea joko zen irabazletzat–. Errege bakoitzak hainbat zaldun izango zituen alboan; iturri batzuen arabera 40 zaldun izango ziren; beste batzuen arabera, 100. Eta hemendik aurrera batzuen eta besteen aldeko iturriek oso bestelako informazioa ematen dute.

Iturri gehienak bat datoz Aragoiko erregea mirabez jantzita eta isilean azal-



SIZILIAR BEZPERAK, ERULO EROLI, (1890-91).

du zela esatean. Baina haren aldekoek erabaki burutsu eta bizkortzat jo zuten hura, eta aurkakoez, koldarkeriatzat. Batzuk diote Karlos I.a ez zela Napoleontik mugitu ere egin; besteek, maiatzaren 15erako Bordelen zegoela. Anjoukoa han zegoela onartuta ere, haren iloba Felipe III.a Frantziako erregeari laguntza eskatu omen zion eta hark 12.000 soldadu bidali omen zituen Bordelera. Hortaz, Karlosek duelauren baldintzatarako bat hautsi zuen eta Pedrok jalinaren gainean

zegoelako hartu omen zuen mozarrotuta eta ezkutuan azaltzeko erabakia.

Biek zioten duelauren gunera azaldu zirela –ordu berdinean ez, ordea–, eta bestea ez zela agertu. Biek jo zuten bestea koldartzat eta beren burua irabazletzat eta Siziliako errege legitimitzat.

Kontuak kontu, Siziliako auzia ez zen Bordeleko Desafioan konpondu. Hori bai, odol isuria guztiz saihestea lortu zuten, bai soldaduena, bai erregeena beraiena ere. ●

## Aire erasoia Napoleonen kontra



1812an Franz Leppich ingeniari alemaniarrak proiektu militar sekretu eta berri-tzailea proposatu zion Errusiako Gobernuari: bale itzurako globo aerostatikoen flota bat eraikitzea. 40 kideko eskifaia eta 12.000 lehegailurentzako tokiak izango zuten globo bakoitzak. Alexander tsarrak proposamena onartu zuen, Napoleonen inbasioari airez erasota aurre egiteko as-

moz. Leppichen hangarretik atera zen lehen globoak ez zuten aineratzea ere lortu; bigarrena metro gutxi batzuk altza zen lurretik. Proiektua bertan behera geratu zen eta Leppichek Errusiatik alde egin zuen 1814ko otsailean. Errusiako Gobernuak 250.000 errubloko dirutza xahutu zuen.

Azkenean Errusiako muturreko hotzak egotzi zituen frantziarrak. Doan, gainera. ●